

kontrol elektronikoa, modelazioa, neurketa eta seinaleei buruzko ix kongresua arrasateko campusean, iturripen

2009/05/21

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikerketa taldea, Liberec-eko Unibertsitate Teknikoko (Txekiar Errepublika) eta Toulouseko Paul Sabatier Unibertsitateko (Frantzia) ikertzaileekin batera Kontrol elektronikoa, modelazioa, neurketa eta seinaleei (ECMS'09) buruzko IX kongresua antolatzen ari da. Kongresu hau Arrasateko Campusean izango da uztailaren 8, 9 eta 10ean.

Kongresu honen helburua artikulu zientifikoak biltzea da eta ingeniari eta zientziaren arloan jarduten duen komunitateari goi mailako kalitatezko foro bat eskaintzea da, bertan, ikerketen azken aurrerapenak aurkezteko.

Edizio hau bederatzigarrena da, hasiera batean frantziar eta txekiarren artean bi urtean behin ospatzen zen ekitaldia ohiko nazioarteko kongresu bilakatu da. Orain artean, Toulouse eta Liberec-en ospatu izan da eta aurten lehenengo aldiz, Arrasateko Campusean izango da.

Aurreko aldietan bezala, doktoregaiei zuzenduta dago, bereziki beraien lanak aurkeztu ditzaten sustatu nahi da. Ekitaldi honetarako, Mondragon Unibertsitateaz gain, ospe handia duten Frantziako EDYSYS eta GEET dokotoregai eskolen laguntza izan da. Eskola hauek hiru unibertsitateetan ikertzen diren gaietan lana egiten dute: kontrol automatikoa, robotika, eragile elektronikoak, materialak eta gailu adimendunak, prozesuen modelazioa eta simulazioa, dependagarritasuna, datu eta seinaleen prozesatzea, neurri elektriko eta akustikoak eta heziketa- transferentziarako teknologiak.

ECMS 2009ri buruzko informazio gehiago web orrialde honetan:

<http://www.mondragon.edu/ecms2009>

